

ABE

Amara Berriko Egunkaria

6. zk

2011ko urriaren 10a



egileak:
Aritz, Unai M, Amaia H eta Paula-

a g u r r a

Kaixo lagunak!!!!!!

Gu Aritz, Unai M, Amaia H eta Paula gara. Lan asko egin degu ABEn, ea gustatzen zaizuen. Espero degu oso dibertigarria izatea. Agurrrrr eta ondo pasaa maritoma-sa!!!!!!!!!!



“Auzokide berriak” webgunea

Eusko Jaurlaritzak webgune bat jarri du martxan, “Auzokide berriak”, gure adineko haurrak ez baztertzeke, hemengo ez diren umeei. Auzokide berriak komiki batzuk dira, hirueledunetan konturatzeko gaizki dagoela bastertzea hemengoak ez direnei. Bilbon aurkeztu dute sailburuek.

Erredaktorea: Anne



Gas leherketa

Astearte goizean ikatz mehategi batean gas leherketa baten ondorez 17 langile hil dira Txinan Guihouz probintzian. Beste 11 pertsona erreskatatu dituzte eta tratamenduan daude, salbamenduko bozeramaile baten arabera. Esan dute 28 langile zeudela, leherketa sortu zenean eta horrek esan nahi du 13k eskapatzea lortu zutela, beste hiru hospitalean hil ziren.



Erredaktorea: Maider

a u r k i b i d e a

- 1.- portada: Auzokide berriak webgunea - Gas leherketa
- 2.- inkesta: Zein da zure abeslaririk gustokoena?
- 3.- elkarrizketa: Unai Velilla eta Amaia Alvarez
- 4.- kontu kontari: Abestia
- 5.- gu ere idazle: Asmakizuna eta hizki zopa
- 6.- lumaren kilima: Margolari Pobrea
- 7.- saski naski: Asmakizuna eta Abestia
- 8.- denborapasak: Gurutzegramak

Arazoak aterpearekin

Aterpe berria inaguratzean iskanbila asko sortu ziren. Oraingoz aterpea saskibaloiean jolasteko izango da, futbola kanpoan egingo da eta euria egiten duenean aterpean joku librea egingo da.




I N K E S T A

Zein da zure abeslaririk gustokoena ?



Adele



Pit bull

Selena
GomezSelena
GomezSelena
GomezDavid
Gueta

Shakira



Lady Gaga



Pit Bull



Melendi

Inkestaren emaitza:

Gehienek Selena Gomez nahiago dute

E L K A R R I Z K E T A

Amaia A.



1- Zein da zure janaririk gustokoena?
Lasaina

2- Zer izan nahi dezu handitan?
Arkitekta

3- Non gustatuko litzaizuke bizitzea?
Parisen

4- Nora joan zara udara honetan?
Salouera

5- Ze libururi ari zara irakurtzen?
Judy Moody, ospetsua egiten da

6- Gustatzen zaizu s.maila? zergatik?
Bai, errexka delako.

7- Nor iruditzen zaizu mutirik guapoena?
Taylor Lautner

8- Zein da zure filmarik gustokoena?
Monte Carlo

Unai V.



1- Zein da zure kirolirik gustokoena?
Surf

2- Zein da zure abeslaririk gustokoena?
Lmfao

3- Zein da zure futboleko talderik gustokoena?
Athletic

4- Zein da zure futboleko jokalaririk gustokoena?
Xabi Prieto

5- Non bizi zara?
Riberas de Loiola auzoan

6- Norekin bizi zara?
Ama, aita eta nire aizparekin

7- Zein da zure lagun mina?
Aritz

8- Nora joan zera oporretan?
Galiziara

e g u r a l d i a

eguzkia



Temperatura: 14 gradu

Zerua: oskarbi dago

Lurra: hotza dago

Haizea: barea

Euria: ez du ari

Presioa: 1022 mb

Gaurko prebisioa: eguraldi ona egingo du



Maria Lertxundi

ESAERA ZAHARRA:

Eguzkia nora, zapiak hara .

Abestia

zorionak zuri,
zorionak zuri,
zorinoak Clara,
zorionak beti.



egilea: Clara Moreno

Txanogorritxo dut izena
amonaren etxera noa
amonatxo ikustera.



egilea: Nora Ezker

Gu ere idazle

2 . z i k l o k o l a n a k

asmakizunak

Aitak kikiriki
amak kakaraka
hori edo gorria naiz
kanpotik
urre-kolorekoa barrutik.



Lehen etxea du parra
gero ahoan ederra,
baina gehiegi hartu
eta seguru mozkorra.



Intsektu txikitu-txikia
oso gogaikarria
nekez ikusi eta entzun
ziztaka gau eta egun



egilea: Maria Urrezti

Hizki zopa

Gaia: Animaliak

Arauak: Bila itzazu 8
animalien izenak.
Norabide guztietan
daude idatziak.

k	a	n	a	r	i	o	a	e	l
a	a	g	t	w	v	i	o	h	e
t	b	e	x	x	x	l	h	o	h
a	c	p	i	l	v	o	o	u	o
m	k	a	m	a	l	a	l	a	i
o	u	r	u	m	m	l	a	h	a
t	o	d	a	u	l	a	l	a	l
z	a	o	r	o	l	z	a	h	m
a	y	a	a	r	r	l	z	b	w
m	a	p	a	t	x	e	a	v	a



egilea: Ander Ugarte

ABE

ABESTIA

PLISTI PLASTA
PLISTI...PLAST
MELA...MELA
ETA...BLAI...BLAI



egilea: Iara Argomaniz

ZEIN DA
GAZTEA IZAN GABE
HEGAN EGITEN DUEN
SAGUA ?



egilea: Clara Moreno



**ABE hitza aurkitu
Portadakoak ez du balio**

Hitzen kiniela

		1	x	2
a.	Lagun - adiskide			
b.	polita - janaria			
c.	sumendi - garmendi			
d.	erlojua - katua			
e.	ongi - gaizkeria			
f.	txikia - katua			
g.	mugitu - higitu			
h.	amaitu - bukatu			
i.	harro - humila			
j.	indartsua - behartsu			
k.	hiztegia - belarria			
l.	lorea - ilea			
m.	pultsera - biburua			
n.	luze - labur			
ñ.	aberats - behartsu			

*Hitz kiniela honetan hamabost hitz bikote daude. Asmatzeko, emaitzak hauek dira: Sinonimoei X, Antonimoei 1 eta elkarrekin harremanik ez dutenei 2.
zorte on !!*



Ahokorapiloa

Balea eta belea
uretan bat
airean bestea!!!



Abestia

zorionak zuri,
zorionak zuri,
zorionak Ainhoa,
zorionak beti.



Lumaren kilima

3 . z i k l o k o l a n a k

Sentsazio zirraragarriak

Nire ohean esnatu nintzen, erlojua begiratu nuen eta goizeko zortzi t'erdia ziren.

Bapatean izugarrizko presa sartu zitzaidan. Eskolara joan behar nuen. Jantzi eta gosaldu gabe etxetik atera nintzen. Ateratzean zerura begiratu nuen eta konturatu nintzen ez zuela oraindik argitu. Gero pixka bat pentsatu ondoren, konturatu nintzen anai zaharrenak, ordua aldatu zidala. Eta ohera itzuli nintzen.




Benetako zortzi t'erdia zirenean lasai gosaldu nuen. Motxila hartu eta eskolara joan nintzen. Eskolan, nire aulkian eseri nintzen eta bapatean izugarrizko mina sentitu nuen ipurdian, nire lagunek txintxeta bat jarri zidatelako aulkian, denak parrez hasi ziren.



Eskola bukatu ondoren musika nuen eta gainera azterketa. Oso urduri jarri nintzen. Musikara iritsi nintzen urduritasunez. Ateratzean pozez zorotua nengoen, hamar bat atera nuen.

Nire amak helatu bat erosi zidan.

Etxera iristean oso berandu zen eta afaldu gabe ohera joan nintzen.



Egilea: Bikendi Larrañaga